



PANTOMIMA
~~~~~

Gida didaktikoa

LH1, LH2, LH3 eta LH4



FUNDACIÓN
BALUARTE
FUNDAZIOA

Ikuskizuna

“Gauero, metronomoaren soinuak sehaskatuta lo hartzen du. Gauero, musika barrokoa jotzen duten orkestrekin egiten du amets. Dena dela, inoiz ez du amestu esnatzen zela, orkestra horrekin elkarri eragiten aritu zitekeenik eta, are gutxiago, jendeak inguratuta egiten zuela.”

Keinu bidezko antzerkia (hitzik gabea) musikaren historiako pieza klasikoekin konbinatzen dituen ikuskizuna da **Pantomima**. Umorez betetako ametsa, musikarien maisutzaren eta pertsonaia protagonistaren xelebrekeriaren artean ibiltzen dena. Protagonista Gorka Ganso clown-a da, Mikel Cañadarekin batera gidoiaren egilekidea.

Talde instrumentala biolin batek, oboe batek, fagot batek, klabe batek eta piano batek osatzen dute, eta Handel, Bach, Mozart, Grieg, Vivaldi eta Morriconeren obrak interpretatuko dituzte, besteak beste.

Euskadiko Orkestraren Musika Gelaren ekoizpena.

EUSKADIKO
ORKESTRA

Gida didaktikoa

Pantomima

Helburuak

- Entzumen musikal aktiboa garatzea eta entzute arretatsua sustatzea.
- Instrumentuak, haien ezaugarriak, tinbrea eta soinua hurbiletik aurkeztea.
- Hainbat musika-egitura ezagutzea.
- Musikak emozioak komunikatzeko eta adierazteko duen gaitasuna ezagutzea.
- Musikak beste diziplina eszeniko batzuekin duen harremana erakustea.
- Sormena sustatzea, gorputz-adierazpenaren eta musika-adierazpenaren bidez.
- Hitzezkoa ez den komunikazioaren eta gorputz-hizkuntzaren aukerez jabetzea.
- Antzoki edo entzunareto batean entzuteko ohiturak eta portaera egokia finkatzea.

Musika-tresnak

Oboea: zurezko haize-instrumentua da. Bere soinua kanaberazko mihi bikoitzekoaren bibrazioagatik sortzen da. Tinbre sarkorra du, sudur-soinuko samarra eta gozoa. Oboeak espresatzeko gaitasun handia du.

Fagota: oboearen familia berekoa, hau ere mihi bikoitzarekin, baina handiagoa eta baxuagoa. Bere tutu luzea bere buruaren gainean tolesten da.

Biolina: hari igurtziko instrumentuen artean txikiena eta altuena. Soinua bere lau sokak arku baten zurdaz igurtziz bibraraztean sortzen da.

Pianoa: hari kolpatuko instrumentua. Soinua teklak sakatzean sortzen da, feltroz forratutako mailu sistema bati eragiten diotenak. Hauek altzairuzko sokak kolpatzen dituzte, erresonantzia kaxaren barnean bibratzen dutenak.

Klabezina: klabezina, klabikorda edo zembaloa ere deitua, hari pultsatuko instrumentua da, teklatu baten bidez eragiten dena. Pianista izango da instrumentu honen jolea ere.



Gida didaktikoa

Pantomima

Clowna eta gidoilari-kidea

Gorka Gansoren konpainiaren eslogana asmoen adierazpen bat da... “GANSO&Cía: Professional idiots since 2007”. Egun hartan hasi zen lelokeriak egiten Cecilia Paganiniarekin batera. Dozena bat urte lehenago hasita zegoen bidaia artistiko hau beste konpainia batzuetan, Arte Ederren Fakultatean, aktoreen prestakuntzan....

Beste arte batzuen gainetik, CLOWN maite du, egoera primario eta inperfektu hori. Abiapuntua eta erreferentzia bere ikuskizun guztien sorreran. Artisau-lanak eta lan garaikideak, non publikoak bere isla aurkitzen duen gizatasunez beteriko pertsonaiaetan. Egunerokoaren heroiak, ergelak eta gardenak, barretik samurtasunera eramaten gaituztenak.

Aldi berean, Orkestrekin kolaboratzen du, besteen ikuskizunak zuzentzen ditu, MALUTA edo TONTOLAPIKO EGUNA bezalako ekitaldiak antolatzen ditu eta euria egiten duen egunetan aterkia ahazten du. Pep Vila lagun eta maisuak dioten bezala: “Klownak ez daki ezer egiten, eta horrekin artea egiten du.”.



Gida didaktikoa

Pantomima



Musika

Estilo eta garai ezberdinetako piezak biltzen ditu kontzertuak. Errepertorioa barrokotik hasi eta XX. mendera artekoa da, obra klasikoekin eta zinemako musikaren zertzeladaren batzuekin.

[PLAYLIST](#) 

[**Trio Sonata I, zk**](#), Georg Friedrich Handel

[**Arioso \(155. kantata\)**](#), Johann Sebastian Bach

[**“Txori-ehiztaria naiz” \(Txirula magikoa\)**](#), Wolfgang Amadeus Mozart

[**Norvegiako dantza op.35, 2. zk**](#), Edvard Grieg

[**Biolin, oboe, hari-orkestra eta kontinuorako kontzertua**](#), Antonio Vivaldi

[**Pantera arrosa**](#), Henry Mancini

[**“Mendiko erregearen kobazuloan”**](#) (Peer Gynt I. suitea), Edvard Grieg

[**Gabriel's oboe**](#), Ennio Morricone

[**Loreen bikotea**](#) (Lakmé), Leo Delibes

Pantomima

Hitza grekozko **pantomimos** hitzetik dator, eta "dena imitatzen duena" esan nahi du.

Pantomima antzerki adierazpen modu bat da, istorio bat kontatzeko edo emozioak adierazteko hitzen ordez keinuak eta gorputz mugimenduak erabiltzen dituen.

Dantzan ere erabiltzen da batzuetan termino hori edo "dantza pantomimikoa", noski, musikari lotua. Adibidez, Fallaren *Amodio sorgina* balletaren musika-zenbaki eder eta poetikoenetako bat, **Pantomima** da.

Zinema mutuan pantomima funtsezkoa zen, filmek ez baitzuten soinurik ez elkarrizketa mintzaturik. Aktoreek beren mugimendu, keinu eta, batez ere, aurpegi-adierazpenekin adierazi behar zuten guztia. **Charlie Chaplin** bezalako artistak umorea, tristura edo ezustea komunikatzeko trebeziagatik egin ziren ospetsu, keinu eta interpretazio fisikoarekin bakarrik. Interpretatzeko modu horri esker, zinema mutua dibertigarria eta ulerterraza izan zen guztiontzat.



Gida didaktikoa

Pantomima

1. Kantumima

Hitzik gabeko ikuskizuna izan arren, mintzatuak zein kantatuak izan, errepertorioko doinuren batekin ahoz lan egin dezakegu ikasgelan. Adibidez, Edvard Grieg-en "Mendiko erregearen haitzuloan" proposatzen dizuegu, baina beste edozein piezarekin egin dezakezue, hobeto ezagutu eta kontzertuaren egunean gehiago gozatzeko.

- Entzun Griegen musika, eta jarraitu doinua kantari.
- Berrikusi melodia *a capella* hainbat tenpotan, azken accelerando landuz.
- Taldeka, asmatu keinu edo mugimendu errazen sekuentzia bat, koreografia gisa errepikatuko direnak.
- Erakuts iezaiezue zuen esaldi koreografikoa gainerakoei, gelaren aurrean jarrita, ispiluan errepika dezaten.
- Doinua ondo ezagutzen duzuenek, saia zaitezkeite hitzak jartzen. Gaia nahi duzuen bezala aukeratu, baina saia zaitezte silaba-kopurua (ahal bada bat soinu/nota bakoitzeko) eta hitzen azentuazioa koadratzen, konpasaren aldi indartsuarekin bat egiten saiatuz.
- Letra ikasi eta "keinuen bidez itzuli", hitzez hitz edo, hobeto esanda, ideiaz ideia.
- Abestu jatorrizko piezaren grabazioari gainean, ideia batzuen ordeztu haien keinuak jarritz. Joan hitzak ezabatzen musikaren gaineko keinu-koreografia bakarrik geratu arte.

2. Musika-tresnak

Identifikatu tresna horietako bakoitza eta idatzi haien izenak. Haien gainean klik eginez gero, haien soinua entzun ahal izango duzue. Bilatu bideo edo grabazioak haien guztien konbinazioak ikusteko: duoak, hirukoteak, laukoteak...



Gida didaktikoa

Pantomima

3. Pantomima musikala

Zinema mutuaren urrezko garaiko aktore eta komiko handienetako bi, Buster Keaton eta Charlie Chaplin, Chaplinek zuzendu eta 1952an estreinatutako *Limelight* filmean bildu ziren.

Pelikulako eszenetako batean, biek pantomima erakustaldi bikaina oparitzen digute, non musikari bikote batek gure kontzertuan dauden bi instrumentu jotzen (edo txikitzen) dituen: biolina eta pianoa.

- Gozatu bikote komiko honen eszena osoaz.
- Aukeratu, errepertorioko musikaren artetik, pantomima bat egiteko gehien inspiratzen zaituzten piezak.
- Asmatu gag-en bat taldeka, hautatutako piezekin.
- Antzeztu orain orkestra baten eszena txiki bat. Bakoitzak joko duen instrumentua aukeratu du, dagozkion keinuak eginez.
- Txandaka, norbaitek orkestraren zuzendari-postua betetzen du, eta haren keinuak imitatuko ditugu beti (oso arraroak izan arren).



4. Komedia fisikoa

Slapstick-a komedia bisual eta keinuzko genero bat da, eta bere erakargarritasuna txantxetan eta kolpe eta biolentzia fartsan oinarritzen du, benetako minik sortzen ez dutenak, baizik eta eszena barregarriak edo gehiegizkoak, ikuslearentzat efektu komikoa dutenak.

1910etik 1930era, zinema mutuaren garaian, *slapstick*-ak ospe handiena lortu zuen, batez ere Estatu Batuetan, non funtsezko pieza baita estatubatuar umorearen garapenean. Generoko irudiak ikustera animatzen zaituztegu:

- Adibidez, [Charlie Chaplin](#), [Buster Keaton](#), [Harold Lloyd](#) edo [Laurel eta Hardy](#).

Pantomima, clown eta umore fisikoaren gure erreferente nagusia **Tricycle** talde katalana izan da, zalantzarik gabe. Joan Gràciak, Paco Mirrek eta Carles Sansek beren nagusitasun fisiko, keinuzko eta komikoa erakusten zuten egoera absurduak izugarri logikoak izan daitezen, publikoaren irribarre iraunkorra lortuz, sarritan barre algara bihurtzen dena.

- Bere ikuskizun ezagunenetako batek **Slastic** du izena. Irudimenezko kirol-gaien marka horrekin, kirolaren gaiarekin jolasten dute, ohiko lehiakortasunean eta indarkerian erori gabe. [Boxeoaren](#) eszena edo [Haurtxoen](#) ikuskizun mitiko eta barregarria gomendatzen dizuegu.



Gida didaktikoa

Pantomima

6. Hitzik gabe

Keinuen bidez asmatzeko jolasak, hain ezagunak, **mimikan** eta **pantomiman** oinarritzen dira. Hitzak, esaldiak, pertsonaiak, animaliak edo gauzak gorputza eta aurpegi-espresioa bakarrik erabiliz irudikatzean datza, hitz egin gabe eta objekturik erabili gabe. Gainerako jokalariek edo taldeek asmatu egin behar dute, normalean denbora-muga batekin.

- **Talde-jolasa: pelikulak asmatzea.** Horretarako, gaia antzezten saia gaitezke, edo bereziki ezaguna den eszenaren bat antzezten, edo zuzenean izenburura jotzen. Horretarako, zenbat hitz diren adieraz dezakegu, eta keinuen bidez definitzen joan, banan-banan. Kontuan izan ez dagoela esku, beso edo hatzen laguntzaz letrak irudikatzeko baimenik.
- **Binakako jolasa: nor naiz?.** Post-it batean pertsonaia, lanbide, animalia edo objektu baten izena idatzi eta jokalaria baten kopetan itsasten da, eta beste pertsona batek keinuz irudikatu behar du, zer edo nor den asma dezan lortzeko.
- **Aplikazioak eta beste formatu batzuk.** Telefono mugikorrek jokoa antolatzen lagundu diezagukete, *Guess Up* bezalako aplikazioekin, baina mahai jokoetara ere jo dezakegu.

6. Keinu onak

Pentsatu zer portaera- eta jarrera-arau diren egokiak zuzeneko kontzertu batera joateko.

- Irakurri zerrenda hau, hautatu irudikatutako punturen bat, gainerakoak asma dezan.
- Aldatu jarraibideak ematen dituen pertsonaia: irakasleak, hegaldi-laguntzaileak, gurasoak...
 1. Izan zaitez puntuala. Normalean ez zaie sartzen uzten kontzertua hasi ondoren iristen direnei.
 2. Eseri txukun. Auditorioetan kontzertuen hasiera iragartzeko abisu-seinaleak ematen dira.
 3. Isiltasuna mantendu, musikariek musikaren interpretazioan kontzentratzeko aukera izan dezaten eta gainerakook gozatu ahal izan dezazuen.
 4. Itzali telefono mugikorrak eta erloju-alarmak.
 5. Ez utzi eserlekua kontzertuaren erdian. Saiatu komunera joaten salara sartu aurretik.
 6. Ez jan eta ez edan kontzertuan zehar. Zure belarria eta espiritua elikatuko dituzu... eta irteeran bazkalduko duzu.
 7. Txalo itzazu artistak kontzertua amaitzean, egindako lanagatik eskerrak emateko.
 8. Irten gelatik txukun eta lasai. Zain egon korridoreetatik hurbilen daudenak eserlekuetatik atera arte.
 9. Baina, batez ere... gozatu kontzertu dibertigarri honekin!



PANTOMIMA

~~~~~

Gida didaktikoa:
Ana Hernández-Sanchiz